Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

475

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena; ebazpen honen bidez, Asistencia Técnica Industrial SAEri (Atisae) baimena ematen zaio erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen errendimendua kontrolatzeko entitate aintzatetsi gisa jardun dezan.

AURREKARIAK

Bat.– 2009ko urriaren 26an, Asistencia Técnica Industrial SAEk (Atisae) baimena eskatu zuen, erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen errendimendua kontrolatzeko arloan entitate aintzatetsi gisa jarduteko Euskal Autonomia Erkidegoan, betiere Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko azaroaren 30eko Aginduaren 5. artikuluan, Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen gaineko kontrolari eta jarraipenari buruzkoan, ezarritakoaren babesean.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Energia eta Meategien Zuzendaritza organo eskuduna da ebazpen hau onartzeko, betiere honako hauetan ezarritakoaren arabera: Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen gaineko kontrolari eta jarraipenari buruzko Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko azaroaren 30eko Aginduaren 5. artikuan eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren 15. artikuluan.

Bi.– Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizteko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren 19. artikuluak ezartzen duenez, erredimendu elektriko baliokidea konplitzeko betebeharra duten instalazioek ziurtagiri bat bidali behar dute, ondoko ezaugarriak izango dituena: administrazio eskudunak aintzatetsitako entitate batek egindakoa izan behar du eta aipatu errege dekretuaren I. eranskinean ezarritako gutxieneko errendimenduko betebeharrak konplitzen direla egiaztatu beharko du, bai eta errendimendu horretan lortutako balio erreala ere.

Era berean, errege dekretu horren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, likidazio ekonomikoko orria

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

475

RESOLUCIÓN de 25 de noviembre de 2009, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza a Asistencia Técnica Industrial, S.A.E. (Atisae) para actuar como entidad reconocida en el ámbito del control de rendimientos de plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 26 de octubre de 2009, por Asistencia Técnica Industrial, S.A.E. (Atisae), se solicita, al amparo de lo establecido en el artículo 5 de la Orden de 30 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, sobre Control y Seguimiento en las plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial, la autorización para actuar como entidad reconocida en el ámbito del control de rendimientos de dichas plantas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes,

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 de la Orden de 30 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, sobre Control y Seguimiento en las plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial, en relación con el artículo 15 del Decreto 514/2009, de 22 de setiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Dos.– El Real Decreto 661/2007, de 25 de mayo, por el que se regula la actividad de producción de energía eléctrica en régimen especial, determina, en su artículo 19, que las instalaciones que tengan la obligación del cumplimiento del rendimiento eléctrico equivalente remitan un certificado de una entidad reconocida por la Administración competente acreditativo de que se cumplen las exigencias mínimas de rendimientos establecidas en su anexo I, así como del valor realmente alcanzado por dicho rendimiento.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 del mismo texto normativo, la acredita-

egiaztatzeko ere, administrazio eskudunak aintzatetsitako entitate baten ziurtagiria aurkeztu beharko da; orri hori oinarria izango da, aurrerago eraginkortasun-osagarria kalkulatzeko.

Hiru.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko azaroaren 30eko Aginduak 5. artikuluan ezartzen du nolako prozedura jarraitu behar den entitate aintzatetsia izateko Euskal Autonomia Erkidegoan, erregimen bereziko energia elektrikoak ekoizten duten instalazioen errendimendua kontrolatzeko arloan (2001eko azaroaren 30eko Agindua, Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen gaineko kontrolari eta jarraipenari buruzkoa).

Lau.– Asistencia Técnica Industrial SAE (Atisae) Baimendutako Kontrol-erakundeen Erregistroan inskribatuta dago, erkidego honetan jarduteko, GV 002-N zenbakiarekin, eta aurkeztu dituen agirien bidez egiaztatu du Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituela entitate aintzatetsia izateko, erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen errendimendua Euskal Autonomia Erkidegoan kontrolatzeko arloan; espedientea izapidetzerakoan, arauzko betekizun guztiak konplitu dira (2001eko azaroaren 30eko Agindua, Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen gaineko kontrolari eta jarraipenari buruzkoa).

Aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, hau

EBATZI DUT:

1.– Asistencia Técnica Industrial SAEri (Atisae) baimena ematea, erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen errendimendua kontrolatzeko arloan entitate aintzatetsi gisa jardun dezan Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– Administrazioak aintzatetsitako entitateek bete behar dituzten egitekoak bete beharko ditu entitate horrek ere, eta zehazki honako hauetan ezarritakoak: Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizteko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan eta Erregimen bereziko energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen gaineko kontrolari eta jarraipenari buruzko Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko azaroaren 30eko Aginduan.

3.– Inskribatzeko kontuan hartu diren egokitasun-baldintzei eutsi beharko die adierazitako entitateak, eta baimena emateko oinarrizkoak izan ziren funtsezko datuetan aldaketaren bat eginez gero, berehala jakinarazi beharko dio Energia eta Meategien Zuzendaritzari.

ción de la hoja de liquidación económica, que servirá de base posteriormente para el cálculo del complemento por eficiencia, deberá efectuarse también mediante certificación de una entidad reconocida por la Administración competente.

Tres.– La Orden de 30 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, sobre Control y Seguimiento en las plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial establece, en su artículo 5, el procedimiento para la obtención de la condición de entidad reconocida en el ámbito del control de rendimientos de dichas instalaciones en nuestra Comunidad Autónoma.

Cuatro.– Asistencia Técnica Industrial, S.A.E. (Atisae), inscrita en el Registro de Organismos de Control Autorizados para actuar en esta Comunidad con el n.º GV 002-N, ha acreditado, mediante la documentación presentada, el cumplimiento de los requisitos establecidos en la Orden de 30 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, sobre Control y Seguimiento en las plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial para ser autorizada como entidad reconocida en el ámbito del control de rendimientos de las mismas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cumpliéndose en la tramitación del expediente todos los requisitos reglamentarios.

Vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

1.– Autorizar a Asistencia Técnica Industrial, S.A.E. (Atisae) para actuar en la Comunidad Autónoma del País Vasco como entidad reconocida en el ámbito del control de rendimientos de plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial.

2.– La citada entidad deberá desempeñar todas las funciones que a las entidades reconocidas por la administración se atribuyen en el Real Decreto 661/2007, de 25 de mayo, por el que se regula la actividad de producción de energía eléctrica en régimen especial y en la Orden de 30 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, sobre Control y Seguimiento en las plantas de producción de energía eléctrica en régimen especial.

3.– La entidad deberá mantener las condiciones de idoneidad por las que ha sido autorizada, comunicando inmediatamente a la Dirección de Energía y Minas cualquier modificación de los datos fundamentales que sirvieron de base para dicha autorización.

4.– Baimen honek bost urterako balio du.

5.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinarazi eta argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria eta Energiako sailburuordeari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoarekin bat etorriaz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 25a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

4.– La presente autorización tendrá una vigencia de cinco años.

5.– Ordenar la notificación y publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2009.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.